



**KULTUR POLITIKEI BURUZKO
NAZIOARTEKO I. BILTZARRA**

2005eko azaroaren 14a eta 15a
Euskalduna Jauregia, Bilbao

**I CONFERENCIA INTERNACIONAL
SOBRE POLÍTICAS CULTURALES**

14 y 15 de noviembre, 2005
Palacio Euskalduna, Bilbao

“Kultura Politika EAEn”

Ramón Zallo

Ikus-entzunezko Komunikazioko katedraduna
Euskal Herriko Unibertsitatean

KULTURA-POLITIKA EUSKADIN

Abstract

Kultura-politikek egokitu egin behar dute erronken arabera. Euskal kulturari dagokionez, erronkak honako hauek dira: mundu globalean eta aro digitalean berezko identitatearekin sartzea, balio erantsi inmaterialen ekonomian sartzea, iristear dagoen indarkeriaren osteko egoera eta nazionalitate aniztasuna. Nagusi diren joerek eremu urriko kulturak bultzatzen ez dituztenez, estrategia argi eta eztabaidatuaren eginkizuna are handiagoa da, eta, horretarako, lau aldaketa proposatzen dira: gure kulturarekiko beste ikuspuntu bat izatea, Euskal Herriaren kultura- eta komunikazio-eremuari buruzko auzia eta inmigrazioari buruzko auzia barne; kultura-politikari diru-laguntzez aparteko garrantzia eta forma ematea eta, Arte eta Industria Kulturalen institutuaren premia aldarrikatzea, sistema osoaren erakarle gisa; ekonomiaren aldetik ere kultura berriro aztertzea; eta kultura-politikaren berezko eta ezinbesteko ondorio den komunikazio-politikari ekitea, euskal eztabaida publikoan konpontzeke dagoen auzietako bat baita.

Politika publikoak, eta kultura-politikak ere bai, dagokien garaiko erronken, premia nagusien, ase gabeko gabezien eta bultzatu edo indargabetu beharreko joeren arabera dira.

80ko hamarkadaren hasieran, frankismoaren hondamenen gainean kulturak berreraikitzea zen helburua. Horregatik, kultura-politikaren xedeak, kulturaren euskararen normalizazioa lortzea, luzaroan baztertutako ondareak berriztatzea, sortzaileei premiazko laguntzak ematea, irrati-telebistaren sistema martxan jartzea, sare soziokulturala berreraikitzeke egiturak eta ekipoak sortzeko politikarekin hastea eta ikuskizunak eta erakustaldiak finantzatzea, kultura eta biztanleekin harremanetan jartzeko.

25 urte geroago, ildo horien arabera lan egiten jarraitu behar dugu, baina orain, erronka gehiago daude, eta, halaber, ohiko erronkak ere aldatu egin dira.

Erronka berriak bizi dugun mundu globalaren eta mundu hori bideratzen duen aro digitalaren testuinguruaren ondorio dira; beste erronka batzuk, industria-ekonomiatik balio erantsi inmaterialen ekonomiarantz bete-betean aldatzen ari den gizartearen premia berrien ondorio dira; eta beste batzuk, dagoeneko indarkeriaren osteko egoeratik hurbil dagoen gure gizarte asaldatuaren berariazkoak dira. Halaber, juridikoki den autonomia erkidegoa izatetik identitate nazionaleko erkidegoa izateko, hau da, nazio anitzeko estatuan berez den nazioa izateko, egin beharreko bidaiari buruz eztabaidatzea ere planteatzen da.

Onartuko didazue, askatasun-gunea den honetan, zenbait diagnostiko egitea eta, neure eta ez beste inoren konpromisoa diren proposamenen jarraibidea aurkeztea, kudeaketa estrategikoan dudak esperientzian eta eztabaidarako hausnarketa pertsonalean oinarrituta.

1. Mundu globalaren eta aro digitalaren testuingurua

Lehenbiziko gogoeta honako hau da: globalizazioak gehien faboratzen dituen **eremuak** ez dira lurraldeetako kultura txikiak. Aitzitik, mundu osoan teknologia- eta finantza-gune boteretsuak dituzten kulturak dira indartzen direnak; horien ostean, harreman sozialak eta botere- eta kultura-lotura nagusiak gobernatzen dituzten estatuak daude, eta, azkenik, metropoli garatuek ere aukera ugari dituzte, truke-fluxuetan berez diren gurutzagune gisa.

Izan ere, identitateari eta harreman historiko/kulturalei dagozkien eremuak, hau da, identitate-erkidegoak, baztertuta daude, nolabait, joeren eskema horretan. Horregatik, euren kabuz jardun behar dute, hau da, euren asmoen eta trebetasun estrategikoen arabera aritu behar dute, joera nagusiak konpentsatzen dituzten kontrako joerak sortu ahal izateko.

Bigarrenik, aipatu beharra dago, globalizazioarekin batera doan aldaketa teknologiko digitala **aurrerakuntza eta aukera** izan daitekeela alderdi askotan; esaterako, hurbileko kulturak garatzeko, baliabideak konpartitzeko, formatu eta lengoia berriak erabiltzeko, mundu osoarekin harremanak trukatzeko, banaketa-kostuak murrizteko, beste kulturak eskura izateko, urrutiko merkatuak irekitzeko, eskala-ekonomia berriak sortzeko...

Horrek eragina du, gainera, jarduera kultural guztietan, hala ondare-jardueretan eta dagozkien zerbitzuetan (liburutegiak, artxiboak...), nola kultura-industrietan (musika, liburuak, zinema, ikus-entzunezkoak, multimedia), eta ondare-prozesuaren edo produkzio-prozesuaren fase guztietan (kontserbazioan eta sorkuntzan, banaketan eta hedapenean, zein produkzioan). Eragina du, halaber, lanak kontsumitzeko eta eskura izateko era guztietan ere.

Adibidez, banda zabaleko telekomunikazioei esker, gero eta publiko txikiagoek satellite bidez igorritako irudiak eta filmak ikusteko aukera izango dute.

Hirugarrenik, digitalizatzeko erak **zalantzak eta arazoak** ere eragiten ditu, zeren botere ekonomiko, finantza-botere eta botere geostrategiko globalen sistemaren barruan sortzen baitira, eta ez, inola ere ez dagoen eremu neutralean.

Dena den, ez dugu deterministak izan behar. Auzi horretan ez dago dena esanda. **Ikusteke dago** erraldoia eta indartsua den sare horizontal eta irekiaren –gaur egun, batez ere anarkia kanalizatua den interneten– eta ordezkatu nahi duen merkatu-sarearen arteko lehiaren emaitza; eta ikusteke daude, halaber, alde batetik, zerbitzu publikoei, *Peer to Peer* trukaketei eta hirugarren sektoreari dagozkien berezko eremuak zein diren, eta, bestetik, negozio-ereduak zein diren. Horrez gain, eremu berrietan zerbitzu publikorako eta zerbitzu unibertsalerako erabiliko diren irizpideei buruzko eztabaida ez da bukatu. Europako estatuak, presiorik gabe, nahastuta daude auzi horretan eta merkatu-eremutat hartzeko joera dute.

Baina, jakina, **arazo larriak** ere badaude. Produktu fidagarrien banaketa-sareei eta eskubideei dagokienez, kontzentrazio-prozesuak sortzen dira; mundu

kulturalaren garapenari dagokionez, hiru abiadura daude: kultura transnazional klonatzailearena, Europako herrialde handi batzuen produkzio iraunkorrena eta arriskuan dauden kultura lokalena; barneko eta nazioarteko zuloak handiagotu egiten dira mundu globalean; gero eta lanpostu kultural gehiago daude, baina, aldi berean, mugikortasunak eta ezegonkortasuna ere areagotu egiten dira; egiazko balio erantsien araberako errentagarritasunak eta ordainsariak ez dira seguruak; artekari berriak sortzen dira; adibidez, agente paketatzaileak, mihizatzaileak, bideratzaileak, atariak, bilatzaileak,...

Hori guztia erronka izugarria da denontzat, baina batez ere gizabanako eta komunitate txikientzat. Ez dugu ahaztu behar, eremu urriko kulturek, Estatuetakoa kulturek ez bezala, ez dutela kultura berez ekoizteko ahalmenik, bai diglosiaren eraginez, bai estatuko komunikabideen mendekotasunaren eraginez, zein esparru politikoaren eraginez. Sistemok ez dute berezko inertziarik, eta, ondorioz, beharrezkoa da instituzioek zein herritarrek etengabe borondate-hausnarketa egitea eta, era berean, agenteek dagokien jarduerari ekitea eta gizarte zibila eren egotea.

2. Euskal kulturari dagozkion oinarrizko problematikak eta aukerak

Euskal Herrian, bakea lortzeko garai itxaropentsua bizi dugu; sistema politikoa berriz aztertzeko garaia eta ideologiak adierazteko garaia da. Baina testuinguruari aurre egiteak ez du justifikatzen beste arazo erabakigarri eta proiektu batzuk ahaztea, kulturalak eta komunikazioari buruzkoak barne.

Euskal kultura orokorrak, *euskal herriaren kulturak*, euskal herritarren kulturak, XXI. mendeari aurre egiteko, oinarrizko problematikek eta alderdi sendoek baldintzatutako jarduera-eremuan aritu behar du.

Problematikak honako hauek dira: alde batetik, sorkuntza eta kultura-merkatuak, merkataritzaren eta nazioartekotasunaren menpe daude, lehen aipatu dudan mundu global eta digitalean, eta, bestetik, Euskal Herriari dagokion kultura-, harreman- eta aurrepolitika-eremu txiki eta zatikatu horrek baldintzatu egiten ditu kultura-apustuen bideragarritasuna eta kostua.

Aipatutako hori nabarmendu egiten da euskarazko euskal kulturaren, *euskal herriaren kulturaren* parte sortzailea den *euskal kulturaren* eta, gainera, ez da ahaztu behar, kultura hori osatzen duten hiru marko politiko eta juridikoen (Iparralde, Nafarroa eta Euskadiren) artean ez dagoela kultura-kontzentrazioa.

Alderdirik sendoenak, nire ustez, honako hauek dira:

Alde batetik, antze kulturala, batez ere XIX. mendetik hona, Europako abangoardiekiko loturak barne; norberarena estimatzea; esperientzia industrial eta teknologiko esanguratsua eta hezkuntza-sistema sendo samarra.

Bestetik, erakundeek euskal kulturari laguntzeko duten gaitasuna eta agenteak elkarrekin adosteko eta oso eraginkorra den gizarte zibila inplikatzeko aukera.

Kulturaren orokorraren eta bakoitzaren kulturaren alde apustu egiten ez duten eta, adierazpen baliabideak aprobetxatuz, teknologia-, sorkuntza- eta ekoizpen-zirkuituetan eta harreman- eta eragin-sareetan abantailez sartzen ez diren kulturak hondatzen joango dira etengabe. Ezin izango dute konpentsatu, autobide, sare eta kanal berrien barruan bidaiatzen duten kultura transnazionalaren, planeta osoko fluxuaren eta nagusi den Estatuaren kulturaren presio hirukoitza konpentsatu.

Horretarako, kultura-politika zehaztua eta parte hartzea bultzatzen duena behar dugu, helburu kultural eta demokratiko zehatzekin, eta kultura, garatzeko bidean dagoen sektore estrategikotzat jo behar da. Sektorre estrategiko horri kulturaren egitura ekonomiko iraunkorra eman behar zaio, demokratizatze eta integratzeko kodeak erabiliz, agente guztiak ildo berean bideratzea bultzatzeko baldintza gisa.

Ikus dezakezueenez, ez nabil negarti, eta nire asmoa ez da norbera errugabetzeko kanpokoei errua leporatzea. Aitzitik, non gauden eta zer garen jakinda –txikiak eta ekimentsuak gara eta bizikidetzaz- arazoak ditugu— errealitatea onartzen dugu, eta hori jakitea erabilgarria da ohikeriak astindu eta bide zuzenagoak eta adostuagoak hartu ahal izateko.

Esandakoaren ondorioz, ulertzeko moduari dagokionez, lau aldaketa daude: gure kultura beste begi batzuekin ikustea; kultura-politikari garrantzi eta forma desberdinak ematea; kultura ekonomiaren aldetik berriz aztertzea edo, hobeto esanda, ekonomia kulturaren eta ezagutzaren arabera berriz aztertzea, eta komunikazio-politikari ekitea.

3. Euskal kultura beste begi batzuekin ikustea

Gure begirada, babesteko joera gaintitu, eta sorkuntza-, ekoizpen- eta trukatzeko-zirkuituetan ipini behar dugu.

Horrek, komunitate txiki batean, etorkizun handiko eremuak hautatu behar direla esan nahi du. Arriskuan dagoen eremu urriko kulturari, zein kultura euskaldun minorizatuari dagokienez, funtsezkoa da kultura-ekoizpenean jauzia egitea. Hori egiteko, eraikitzen ari den identitate sortzailearekin lotutako euskal kulturaren kontzeptu zabala izan behar dugu.

Horrek garapen kultural adostua eskatzen du. Hasteko, muturreko adierazpen bortitzak baztertuz gero, “auziak” sustatzeko eta kudeatzeko korapiloetan murgilduta dagoen eta, gerora, eremu zabalagoetan, eraikitzaileagoetan eta sortzaileagoetan jardun dezakeen jende askoren energiak desblokeatu egin daitezke.

Halaber, horrek esan nahi du, agerian dauden bi auziri ekin behar diegula, hots: euskal kulturaren eta komunikazioaren eremuari eta inmigratioari.

3.1. Euskal eremua

Nire ustez, zentzutasuna eskatu beharko litzateke, euskal kulturari, Euskal Herri osoari, dagokion kulturaren eta komunikazioaren eremuari buruzko auziari ekiteko, hau da, elite kultura-hiltzaile batzuei komeni ez zaien entelekia gisa ez tratatzeko, ez eta, kultura aitzakiatzat hartzen duen proiektu politikoa bideratzeko besterik ez den eremu gisa ez hartzeko ere.

Egitura sozial, politiko edo administratiboez aparte, Euskal Herria euskaldunen erkidegoa da, edo baskoiena, edo euskaldunena eta nafarrena –berdin dio–, eta heterogeneoa eta aldakorra izanda ere, identifikagarria den bizimodu eta kultura-identitate jakin baten arabera zehazten da. Euskal Herria, halaber, kultura- eta harreman-eskubideak dituen subjektu historikoa ere bada, eta horren euskarriak, alde batetik, parte batean konpartitua izan den identitatearen eta komunitatearen historia (arbasoak, kultura, hizkuntza, harremanak, liskarrak...) eta, bestetik, gaurko gizarte-harremanak dira (kulturalak, hizkuntzakoak, ekonomikoak, barneko inmigrazioa, gizartearen, sindikatuen edo alderdi politikoen erakundeak, ideologiak, ohiko harremanak, kirola, folklorea,...).

Denon kultura-eremu hori eraiki egin daiteke, proiektu politikotzat jo eta nahasten ez bada. Horixe da, hain zuzen, edozein alderditan elkarrekin lan egitea eragozten duten erresistentzia handiak desarmatzeko bide bakarra.

Dena den, gogoan izan behar dugu, kultura-komunitate hori indartzeko edozein prozesuren osagaiak honako hauek direla: bakea; harremanak areagotzea eta estutzea, hizkuntzan, kulturaren, erakundeetan, kirolean, enpresetan, elkarteetan eta unibertsitatean; erakunde publikoen eta pribatuen arteko proiektu komunak; diferentziak arrazoiz kudeatzea; epe luzerako proiektuak direla jakitea,...

Elkarrekin lan egin dezakegu, berdintasunean eta elkar errespetatuz, arlo kultural, sozial eta ekonomiko guztietan, barne-truke arinak dituen kultura-merkatua sortuz eta EAE, Nafarroa eta Iparraldeko sareko eredu kultural bakarra sustatuz. Horrela, hurbilketa politikoak ere erraztu egingo lirateke.

3.2. Inmigrazioa

Inmigrazioaren eta saihestezinak diren ondoriozko mestizajeen auziari kudeaketaren bidez ekin behar zaio; hau da, bide xenofoboak eta elkar ez ulertzeko bideak baztertuta.

Langile inmigranteen hirugarren bolada izan dugu, baina gure herrian XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen erdialdean bizi izan genuenean baino askoz ere jende gutxiago etorri da, baina etorri direnak kultura anitzekoak dira.

Inmigrante berri horietako asko hemen gelditzekotan etorri dira. Zahartzen ari den komunitateko demografia handiagotzeaz gain, ekarpenak dakarzkigute lanari, ekonomia eta zerga-ordainketari eta kulturari dagokienez. Errespetua eta esker onean oinarritu behar dugu.

Baina elkar integratzeko prozesuak bideratzeko, etengabeko azterketa egin behar da, eta politika eragileak eta aurrerakoiak garatu behar dira, sozialki eta kulturalki bat etortzeko sortzen diren egiazko arazoak –Frantzian ikus ditzakegunak– mugatzeko, liraintzeko eta bideratzeko, *ghetto*-ak saihestuz. Mestizajea onartzea, berdintasunezko tratamendua ematea, inmigranteen eskubideak babestea eta kulturak onartzea, aldez aurreko baldintzak dira, eurek gure kultura adiskidetasunaz onar dezaten. Horrez gain, eskaintza hori integratzeko asmoz egin behar da eta ez asimilatzeko asmoz eta, jakina, azken urteetan egin diren esfortzuak alferrik galdu gabe; horrek, halaber, euskal kultura, *euskarazko kultura* barne, sustatzea dakar.

Ulegarria da inmigranteek nagusia den hizkuntza (gaztelania) erabiltzeko duten joera. Dena den, euskal hiritarrek, beti ere, begi onez ikusi dute lehengo zein oraingo inmigranteek euskararekin harremana izatea, zeren, horrela, integratzeko eta hiritarren kultura anitzak bat egiteko prozesuak erraztu egiten baitira. Atzeritik datozen pertsonak, gazteak gehienak, erabat integra daitezten, ezinbestekoa da gizarteratzeko ekimenak sortzea, euskara bereganatzeko bide erraz eta naturalak barne.

Hala ere, hizkuntzari dagokionez, itxaropen handienak oso gazteak diren inmigranteengan edo emigranteon seme-alabengan izan behar ditugu. Iraganean boladetan etorritako inmigranteen seme-alabak euskaldun-izaeraz jabetu ziren eta, gehienek, euskara ikasi dute, gainerako umeek bezala.

4. Kultura eta ekonomia

UNESCO-ren doktrina berriaren arabera, planteia dezakegu –eta hor eztabaida dago– kulturari tratamendu berezia ematea beste ekonomia-sektoreen aldean. Horregatik, zilegi da politika industrial horizontal eta homogenea gainditzea, EB-a alderdi horretan, oraindik uzkur badabil ere. Zilegi da, halaber, auzia hainbat ikuspuntutik planteatzea (aldi bereko laguntzak lortzea hainbat arlotatik : zergak, hezkuntza, atzerriko harremanak, industria...). Kultura txiki bati dagokionez, ondorioa garrantzitsua da: berariazko tratamendua eskatzen duen eta izan dezakeen berariazko sektorea da.

Alde batetik, kulturak lehentasuna du, jakina denez, Kultura sailetan, baina gainerako gobernuetan (erkidegokoan, lurraldekoan edo lokalean) ez du lehentasunik, zeren kultura-politika eta kultura bera bigarren mailakotzat jotzen baitute, beste politiken aldean.

Eta, hala ere, ezagutzaren garaian, kultura-politikak ezin du bigarren mailako politika izan, nolabaiteko arlo atsegina, kultura-mundu atseginarekiko harreman onak izateko arloa balitz bezala, gizartearen estrategia zehazteko esparrua izan beharrean.

Hori aurrekontuetan ikusten da. Tradizioa hazkunde begetatiboak izan dira. Eta 90ko hamarkadan, noizbehinka, ekintza garesti eragingarriak tartekatzen ziren. Kulturaren Euskal Plana bertan, honako hau esaten zen: “Kulturarako aurrekontuek...

ezin dute hazkunde begetatibo garbia izan, erronkei aurre egiteko; aitzitik, laguntza ausarta eta etengabea behar dute.”

Are gehiago, erakundeen sail batzuetan, dagoeneko, estrategikotzat jotzen da, baina, gaur egun, oraindik ez dugu lortu ondorioz dagokion aurrekontuen jauzia egitea.

Zalantzarik gabe, auzia ez dagokio Sail bakar bati, gobernu edo erakunde osoari baizik. Hezkuntza inplikaturata dago, kulturaren prestakuntza arautuan edo hainbat adierazpenetako berariazko prestakuntzan; industria ere bai, industria-politikako tresnak bultzatzeko edizioan, artisautzan, fonografian, ikus-entzunezkoetan, multimedian eta SI-rekin lotutako eduki kulturaletan; Ogasun zailari ere badagokio, kultura-ekoizpenean kapital pribatuk sartzeko egokiak diren zerga-tipoak sortzeari eta sortzaileak behar bezala tratatzeari dagokienez; halaber, Turismo sailaren ardura ere bada, jasotzen ditugun bisita-kopuru garrantzitsua kontuan hartuta, edota Nazioarteko Harremanena, truke-kontuetan.

la herrialde guztietako lehentasunezko politikak eta aurrekontuak, besteak beste, teknologia-zerbitzuak, *know how* deritzona, I+G+B, informatika, finantzak edo antolakuntza sustatzeko erabili ohi dira. Ondo erabiltzat jotzen dira eta ez dira justifikatu behar. Euskadin ere bai.

Hala ere, oraindik edukien defizita daukagu, eta asko kostatzen da sinestaraztea etorkizuna edukietan dagoela, sarean dabilzan eta sareak eurak baino askoz ere gutxiago garatu diren edukietan, alegia (balio erantsi inmaterialak ekoizteko zerbitzuetan, hau da, kulturean, esparru guztietako prestakuntzan, diseinuan, eskubideen kudeaketan...).

Ondorioa argi dago, kultura- eta komunikazio-sare sendoa sortu behar da, atzerriko kultura- eta komunikazio-produktu globalizatuen erosle eta jasotzaile hutsak izan ez gaitzen, eta kulturaren sektorean, ezagutzaren, kulturaren eta komunikazioaren ekonomian espezializa gaitzen, zeren alderdi horiek garatuta, euskal gizarteari neuronak berpiztu egingo baitzaizkio, inguruko aldaketa bizkorretara egokitzeke. Horixe da, hain zuzen, garapenaren parte kualitatiboa.

5. Kultura-politika eta sorkuntza-politika

Ezagutzaren eta kulturaren aroan gaude, eta erronka nagusia ez datza, ez edukitzailean, ez eta edukietan ere, baizik eta honako alderdi hauetan: giza baliabideetan, sorkuntzan, prestakuntzan, esperimentazioan, eskuragarri izatean, irudimenean, jakintzan, ezagutzen nahasturan, erabileretan...

Horretarako, paradigma, erregistroa, aldatu behar dugu, eta gizartean inbertitu behar dugu, gai grisezko sare sendoa sortuz, zeren, alde batetik, horixe baita baliabiderik ugariena bizi dugun garai honetan, eta, bestetik, urriena baita alderdi konplexu eta sortzaileei dagokienez.

Hemen ez ditugu gogoratuko Kulturaren Euskal Planean (120) aztertzen diren ekintzak –horietako batzuk martxan daude dagoeneko– , baina merezi du, zeharka bada ere, ezarritako 5 lan-ildoak eta dagozkien proiektu bultzatzaileak azaltzea.

- egitura sendoen bidez, sorkuntza eta ekoizpen iraunkorrei lehentasuna ematea

- integrazio kulturala lortzeko ahalegina;
- identitatea indartzea;
- modernizatzea eta
- atzerriko proiektzioa.

5.1. Egitura sendoen bidez, sorkuntza eta ekoizpen iraunkorrei lehentasuna ematea

Osoko politika behar da, balio-kate osoaren (batez ere prestakuntzaren eta banaketaren) araberakoa eta diru-laguntzen politika gainditu duten beste politika batzuetan, besteak beste, zergetan, industrian, finantzazioan, kultura-enpresen mintegietan, prestakuntzan edo marken politikan duten esperientzia erabilia. Horrek etengabeko koordinazioa eskatzen du erakundeen artean, mundu pribatuan, sorkuntzan eta gizarte zibilean. Eta hori guztia, kulturaren balio-katearen faseetan jardunda.

Oreka dinamikoa behar da, fase bakoitza bultzatzeko: prestakuntza, kontserbazioa, sorkuntza, ekoizpena, banaketa, sustapena eta hedapena, baina lehentasuna eman behar zaie, gar egun ahulenak direnei, hau da, prestakuntzari, sorkuntzari, sustapenari eta banaketari.

Horren arabera, bi ekimen beharrezkoak lirateke, hots, zerga-ekimenak eta finantza-ekimenak. Zerga-arloari dagokionez, geldirik dauden kapitalak kulturaren mundura erakartzeko eta ekimen eta finantziario publikoen osagarri diren fundazioen sorrera sustatzeko erabili behar da, eta, horretarako, gaur goizean mahai batean garatu diren bi euskarri erabili behar dira, hots: mezenasgoarentzako zerga-laguntzei buruzko araudi berria eta Kulturako inbertsioen desgrabazioei atea irekitzen dien Gipuzkoako foru-arau berria.

Finantziarioari dagokionez, ikus-entzunezkoei sektoreak mugatuta erabili duen finantzario-lerro eskuzabala eskaini zaio, kasuan kasuko, kosturik gabekoa edo merkatu-prezioaren azpitikoa, eta finantziario horren emaitza ebaluatzeko goizegi bada ere, kulturaren eremu komertzial eta industrial asko finantzatzeko itzulkin bidezko eredu orokorragoa sortzea pentsa daiteke (agian, gerorako Arteen eta Kultura Industrien Institutuaren bidez).

Hitzarmen egonkorren bidezko epe ertaineko EITB-ren eta kultura-sektoreen arteko lankidetzan, sustapena sartu beharko litzateke –agendari dagokionez, literatura, musika eta zinemari buruzko berriazko literatura-programak eginez, kostu handirik gabeko publizitatearekin eta gure sortzaile eta artistak aurkeztuz–, kultura-

industrien zenbait produktu edo sorkuntza hedatu egin beharko lirateke, finkatuta dagoen EITB-ren ikus-entzunezko sortzaileetarako inbertsioaz gain.

Baina, horretarako, egitura eragile bi behar dira:

- Komunikazioaren eta Kulturaren Behatokia, kulturaren eta komunikazioaren osasunaren egoera etengabe aztertu ahal izateko.
- Arretarako eta kudeaketarako egitura berria, konpartitua eta behar diren baliabideekin. Arteen eta Kultura Industrien Institutua erakunde eragile nagusia eta gangaren giltzarria izango litzateke. Kultura-sektoreak biltzen dituen zuzenbide publikoko erakundea izan daiteke, eta urteroko ohiko deialdien arabera ez den sektorearekiko harreman-eredu berria oinarritu daiteke. Kulturari dagozkion aurrekontuak arinago kudeatuko lirateke; aldaketak proposatzeko behar den legitimazioa izango luke, aurrekontua kudeatzeko irizpide malguagoarekin eta lehen besteko gardentasunarekin, eta aukera izan beharko luke zenbait kontu-saili egiten zaizkien ohiko esleipen batzuk egokiak diren ala ez ebaluatu ahal izateko eta detektatutako xede zehatzetarako baliabide ekonomiko gehiago izan beharko lituzke, diru-laguntzen arabera jardueratik, zerga-arloaren eta industria- eta sustapen-finantziarioaren arabera jarduerara pasatuz.

5.2. Integrazioa

Jarrera kontua da, batez ere.

Horretarako, honako alderdi hauek kontuan hartu behar dira: kulturaren kontzeptu zabala izatea eta nortasun euskaldunaren lurralde-adierazpen anitzak errespetatzea; tokikoa eta oinarritzko kultura sustatzea, eta ez bakarrik nazionala; kultura eta komunikazioa eskuratzeko aukera berdinak sortzea, *copyleft*-a eta *creative commons*-en arabera autoreen lizentzia irekiak eta borondatezkoak bultzatzea; komunitate eta elkarten irratia eta telebistak sortzea; ordaindu beharreko zerbaiten prezioa, maila erantsiaren ondoriozkoa dela pentsatzeko ohitura izatea, eta ez jabetza publikoan zegoelako edo diru publikoaren bidez finantzatuta zegoela pentsatzea; inmigranteenganako elkar integratzeko harremana izatea,...

Ikus dezakezueenez, gai asko dira, baina jarrera bakarra da.

Azken alderdi horri dagokionez, gutxienez 6 hizkuntzatan argitaratzeko zain dagoen ekimena burutu dugu. Ekimen hori, inmigrantei Euskal Herriko gizartea, ekonomia, sistema politikoa, historia eta kultura –literaturak, zinema, ondareak, ikusmen-arteak...– nolakoak diren azaltzen dien eskuliburua da. Helburua, non dauden jakiteko bizitza oso bat, seme-alabena, itxaron behar ez izatea da. Gauza bitxia bada ere, eskuliburu hori ondo eta hizkuntza egokia erabiliz egiteko, alde zuzenetik, beste liburu sakon bat egin behar izan dugu. Lehenbiziko liburu hori ere argitaratu egingo dugu, eta daukagunari eta zer garenari buruzko *vademecum* edo osoko gida laburtu gisa erabili ahal izango dute, bai bertakoek, bai kultuagoak diren bisitari edo inmigranteek.

Beste ekimen bat, herri bakoitzeko Kultura-etxeetan inmigranteen gehiengoaren jatorrizko herrialdeetako materialak –egungo liburu eta aldizkariak– jartzeko apalategia ipintzea da, kultura-etxeak inmigranteen kulturak errespetatzen diren leku bihurtu dadin eta bisitatzeko eta bertan biltzeko lekua izan dadin.

5.3 Identitatea

Alderdi asko badauzka ere, bateren bat komentatuko dugu.

Balitzko Euskal Gizartearen Historiaren Museoan kontakizun konpartitua izatea lortzen dugunean, Katalunian edo Quebec-en egin duten bezala, jauzi kualitatiboa egingo dugu gure egituren antolakuntzan; ez gizarteari dagokionez, zeren gure gizartearen antolatuta baitago, baizik eta kultura-komunitateari dagokionez; gure historiari eta gaurko egoerari buruzko kontakizun komun samarra izanik, eta bakoitzaren ideologia edonolakoa izanda ere, memoria kolektiboa finkatu ahal izateko.

Horrelako proiektua burutzeko oinarria, Donostiako San Telmo edo beste lurralderen batean sortzen den erakunde berriren bat izan daiteke.

Euskarazko kultura bultzatzeko, ekimen publikoak egin daitezke: bertako liburu, disko eta ikus-entzunezkoei buruzko politika koordinatuak sortzea; euskaraz egindako kultura-produktuen diskriminazio positiboa egitea, kalitate-irizpideak erabilita; euskarazko ekoizpenen itzulpeni buruzko politika zehaztea, barneko zein atzerriko merkatuetarako; urtero, euskaraz egindako filmaren bat ekoiztea; zinemako eta telebistako bikoizketa areagotzea, zinema-aretoetan euskarazko saioren gutxieneko kopurua ziurtatzeko eta LTDL-an edo erkidegoko telebistan emanaldi dualak bideratzeko; ikus-entzunezko zerbitzuei dagokienez, kuoten eta sustapenaren politika zehaztea...

5.4. Modernizazioa

Kulturaren egitura ekonomiko ahalik eta iraunkorrena sustatzeko, ikus-entzunezkoen eremuan sortu den *cluster*-aren antzeko kooperatzeko erak hedatu egin behar dira, azaltzen ari diren beste eremu estrategikoetara.

Euskal tradizio kooperatibista ez da asko azaldu kultura-eremu indibidualistan, eta baterako proiektuak burutzeko oinarria izan daiteke. Problematikak zehaztuta izan ditzaketen beste sektore batzuek minicluster-en antzekoen bidez kooperatzeko aukera izan dezakete, euskarazko zein gaztelaniazko argitaratze fonografikoan edo multimedian asoziazionismoak beregain har dezakeen aukera, alegia.

Sarean pentsatu beharra dago, kooperatu egin behar da, balio-katearen mailak lotu egin behar dira, I+G+B barne, edota apustu bateratua egin behar da zenbait esparruren alde: patenteak, azoketan agertzea, atzerriko harremanak, sustapen bateratua, merkatuak irekitzea, euskararen euskal esparrua erregistratzea, “eus”...

Bereziki egokia izango litzateke artisautzarako, zeren oraindik ez baitu markarik, kalitate-estandarrik, ezagutzak hedatzeko aukerarik eta zirkuitu komertzial berririk ezarrita. Hala ere, badago, oraindik aztertu, inplementatu eta koordinatu gabe dagoen sektore horretarako aurreproiektua.

Kultura industrializatu eta digitalak, auziari PESI berriaren arabera ekitera behartzen gaitu. Plan horren aitzindaria, Eusko Jaurlaritzako Industria Saila da. Hizkuntzaren industrien eta edukien digitalizatzearen arabera alderdi horri dagozkion larroak irekitzea, berehala onartu beharreko erronka da.

Halaber, kultura digitala erabiliz, mailaka, ondare guztiei balioa ezartzeko, (liburutegiak, artxiboak, konexioak, aisialdia, erreproduktzioa...), erakunde publikoek zenbait alderdi koordinatu egin behar dituzte; hala nola, biltegiak seguruak, eta katalogazio eta estandar bateragarriak, edozein ezagutza erabili ahal izateko lotura anitzak, gerora, teknologiak aldatzen direnerako, babes- eta sarbide-estrategiak sortzea, musika, lege-gordailu, ikus-entzunezko, argazki edo testuei dagozkien sarrera berriak digitalizatzea, sarbideak ugaltzea eta azkartzea,...

Hona hemen, besteak beste, eman beharreko urrats egokiak: kalitatezko zerbitzu publikoko eremu handiak sortzea, sistemaren demokratizazioa areagotzeko *e-governement* delako erabiltzea, *governantza* irekiaren baliabideekin batera, liburutegiak mediateka bihurtzea,...

Alderdi horri dagokionez, proiektu eragileenak, alde batetik, Liburutegi eta Artxibo Nazionalak, eta, bestetik, Donostiako Tabacalera proiektua izan daitezke, ikus-entzunezkoen arloan laster burutuko direnekin batera; adibidez EITB Bilboko Nazioarteko Azoka zegoen lekura eramatea edo erabilera kulturaleko zenbait ekoizpen-ekipo Zorrotzaurren, Irudi Park-aren barruan, ezartzea.

Oso garrantzitsua izango litzateke, sareei eta ekoizteko, transmititzeko eta hedatzeko teknologia berriak zein zaharrak (analogikoak, lurreko digitalak, kablea, sareak...) ezartzeko diseinuari buruzko gogoeta egiten dugunean, gure herrialde eta erkidegoan gizarte-komunikazioen mapan betetzen duten leku soziala kontuan hartzea. Bestela, talde transnazional handien eta tokiko eranskinen errentagarritasun-premiekin euren ereduak ezarriko dituzte eta bertako kulturak ez du erabilera-esparrurik izango. Auzi horretan, badute zeresanik Euskaltelek, EITB-k...

5.5. Atzerriko harremanak

Azkenik, Espainiako eta Frantziako estatuetako, Europa osoko, Latinoamerikako eta AEB-etako –euskarri diasporko hiritarrak bizi diren lekuetako– komunitate eta merkatuetarako kultura-erakundeak trukagarria eta esportagarria eginez gero, alegiazko ulergarriekin eta kalitate-maila onargarriekin, barnekoak baino zabalagoak diren sareetarako ekoiztu behar duenaren mentalitatea erakutsiko dugu.

Etorkizunean sortuko den Euskadi Institutua kulturaren eta euskararen enbaxadore nagusia izango da.

Marka bateratuen, musikariak eta editoreak babesteko kontaktu-sare egonkorren hastapen gisa, nazioartean ezagutarazi behar diren sortzaile eta agenteen gida orokorra sor daiteke.

6. Komunikazioen politika

Komunikazioen politika kultura-politikaren berezko ondorioa da. Komunikabideak kulturaren luzapen boteretsuak eta ezagutzera emateko biderik ahaltsuena dira eta, hala ere, ia ez dira agertzen eztabaida publikoan.

Alde batetik, komunikazioen politika, estrategikoa izanik, oso garrantzitsua da gizartearen integrazioa eta heldutasuna lortzeko eta herri bat eraikitzeko. Ezinbestekoa da norbere komunikazio-sistema integrala edukitzea arrazoi askorengatik: alde batetik, komunikazioari, pluralismoari, kalitateari eta integrazioari dagozkienak eta, bestetik, ondarea, arteak eta kultura-produktuak hedatzeari dagozkionak.

Bestalde, komunikazioen politikak kultura-politikaren gune gogorraren parte bihurtu behar du. Garai honetako kultura nagusia kanalizatuta, sustatuta datorkigu eta ikusgai dago komunikabideetan, eta Internet eta antzeko komunikatzeko bide berrieekin, LTD-aarekin, ADSL bidezko telebistarekin, edota sareko kultura digitalarekin, eragina 10 bider handiagoa da.

Bertako komunikazioen sistema behar dugu. Sistema horren helburuak barneko gizarte-komunikazioa garatzeko bokazioa izan behar du, kultura ugaltzeko eta berritzeko eta euskaldunen komunitatea bateratzeko eta segmentazioa gero eta handiago den garai hauetan ikus-entzuleak elkartzeko gauza izan behar du. Halaber, sarea erabiltzeko eskubidea eta iritzi publikorako berariazko eremua ere sustatu egin behar dugu, zeren, bestela, iritzi publiko hori inguruko erreferentzietan era anonimoan sakabanatuko baita. Komunikazioen sistema horrek, atzerrirako edukiak eskaintzeko gai izan behar du.

Komunikazioen politikari dagozkion eztabaidei aurre egiten ez badiegu, komunikazio-eragileen esku utziko ditugu. Horregatik guztiagatik, komenigarria dirudi, komunikazioen auziari buruzko herri-pentsamendua finkatzeko, KEK-rekin lotutako lan-talde berria sortzea, beste arlo batzuetan sortu diren bezala.

Komunikabideen egitura zabalagoa eta anitzagoa lortu behar dugu, zeren informazio, transmititutako balore, hizkuntza-erabilera, gustuen hezkuntza edo agenda eratzearekin oso lotuta baitaude. Egitura zabal horrek hiru helburu izango ditu:

A) Lehenbizi, Euskadiko eta Euskal Herriko barne-komunikazioa egituratu eta sendotu egin behar da, eta, gainera, barne-komunikazio horrek, ahalik eta anitzena, parte-hartzaileena eta ezaguterrazena izan behar du bizimodu eta sentikortasun kultural eta sozial guztientzat.

Ildo horretan, hainbat ekimen interesgarri sar daitezke: zerbitzu publikoko EITB-an sakontzea; Informazioaren Gizartean, Euskal Herrirako komunikazio-

proiektu digital globala sortzea, gutxienez, hiru *multiplex* dituena (bakoitza 1x4koa), eta bertako telebista elebidunak eta euskarazkoak sortzeko ahalmenarekin, iragarrita daude kanal estatal eta pribatu ugarien zaparrada partzialki konpentsatzeko; eskualdeetako telebistak, instituzionalak edo mistoak, edo erkidego osorako telebista pribatu berriak sortzea, berezko ekoizpenari, tokiko bizitzari eta euskarari buruzko nahitaezko gutxieneko jakin bat ezarrita; EITB-ren eta produkzio-etxean, programa-paketatzaileen eta Euskaltelen arteko sinergiak garatzea; ADSL bidezko telebistaren segimendua egitea; kable bidezko telebista garrantzitsua; FM-ko frekuentzia berriak lortzea, tokiko FM-ko irratiak garatzeko –eragile beraren tokiko telebistekin ere konbina daitezke–; espektror irratieko eragozten ez duten elkarten irratiak eta irrati kulturalak babestea.

B) Bigarrenik, komunikazio-sistemaren kalitatea hobetu egin behar da, hainbat alderditan. Alderdiok honako hauek dira: informazioaren pluraltasuna eta kalitatea; balio-edukiak; hizkuntza-normalizazioa; informazio kulturala; belaunaldi, interes eta habitatera egokitutako informazio-mailak; gero eta handiagoa den gizarte-aniztasunaren aurka, pluralismoa murrizten duten oligopolio komunikatiboak mugatzea.

Ildo horren arabera izango lirateke: Ikus-entzunezkoen Komunikazioaren Legea, komunikazio-sisteman aniztasun-irizpideak eta ikus-entzunezkoen sistema arautzeko mekanismoak ezarriko litzatekeen, entzute eta ikustearen komunikazio-eremua zaindu eta erregulatuko lukeen aginte independenteko Ikus-entzunezkoen Komunikazioaren Kontseiluaren bidez; euskarazko komunikabideen egoerari buruzko hausnarketa; prentsa-talde independenteak sustatzea, gehiago egon daitezen, informazio-monopolioak saihesteko asmoz...

Hirugarrenik, atzerrian proiektatzea (Espainia, Frantzia, Europa, Amerika eta “diaspora”). Geure informazioa eta edukiak behar ditugu, askoz ere ahaltsuagoak diren eta nonahi aritzen diren eragileen (besteak beste, prentsa, telebista, diplomazia, informazio-bulego, informazio-agentzia, kooperazio-agentzia edo nazioarteko komunikabideen) mezuak konpentsatzeko. Euskal kulturak eta euskal ahotsak ez dituzte gure mugak gainditzen; beraz, atzerrira komunika daitekeen kultura eta euskaldunok atzerrian dugun irudia, besteen erabakien arabera dira eta auzi politiko interesatuekin nahastuta zabaltzen dira.

Esparruaren arabera, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez, audioa, bideoa, testu idatzia –Internet ahaztu gabe– eskainiko litzatekeen komunikabide anitzeko informazio-agentzia sortuz gero, atzerrian proiektatzeko bidea eta barneko erreferentzia izango litzateke, eta, gainera, informazioaren kostua murriztu egingo litzateke eta une larrietan gertatzen zaiguna guk geuk kontatzeko behar den besteko ahots indartsua ez izateak sortzen duen egoera penagarria saihestuko luke, zeren beti besteak izaten baitira, interpretatzen gaituenak.

Hasi naizen bezala bukatuko dut. Honako hau, hemen eta Kulturaren Euskal Kontseiluan eztabaidatzeko asmoz emandako iritzia baino ez da.

Ramón Zallo (Euskal Herriko Unibertsitateko Ikus-entzunezkoen Komunikazioko Katedratikoa)

